

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskaldunen kopurua %5a igo da azken hamarkadan


Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) Euskal Autonomi Elkarteari dagozkion 1991ko Etxebizitza eta Biztanleri Erroldaren lehen emaitzak aurkeztu ditu.

Euskarari dagozkion hizkuntza gaitasunari buruzko datuak oso positiboak dira. Izan ere, azken hamar urteotan euskaldunen eta ia-euskaldunen kopuruek 5 puntuko igoera izan dute. Lehenak %21,5etik %26,7ra igaro dira. Bigarrenak %14,5etik %19,5era. Erdaldunak, ostera, %64etik %53,8ra jaitsi dira. Euskaldun gehien dituen eskualdea Gipuzkoa da (bere biztanleriaren %49a). Bizkaiak %19a du eta Arabak %10a.

Azken honek gorakada handia izan du, 81ean euskaldunak populazioaren %4a bait ziren. Ia-euskaldunen pisua berdintsua da hiru herrialdeetan (%20), Gipuzkoan (% 18) piskat jaisten bada ere.

Aldaketa itxaropentsuenak gaztetxoaren artean izan dira. 5-9 urte artekoen bilakaera aztertuz gero, euskaldunen kopurua bikoiztu egin dela ikus daiteke, hamar urtetan %20tik %40,1era igoz. Ia-euskaldunak ere %20,9tik 30,9ra igo dira, erdaldunak 30,2 puntu jaitsi diren bitartean.


1991ko erroldak erakutsi duenez, EAEn 2.104.041 pertsona bizi dira. 1981ean baino 37.768 gutxiago.



EHUK Koldo Mitxelenari ikastaroa eskaini dio

Euskal Herriko Unibertsitateak Koldo Mitxelena zenari hitzaldi sorta interesgarria eskaini zion hiru egunetan zehar Udako XI. Ikastaroetan. Hitzaldi sortak Mitxelena ezagutu ez zuten ikasleei haren nortasuna eta lanaren gakoak ezagutaraztea izan zuen helburu. Hizlarien artean, kanpoko espezialistak eta Mitxelenaren lankide eta ikasle ohiak izan ziren. Guztiak bat etorri ziren euskal hizkuntzalaritzan Koldo Mitxelenak izan duen garrantzia aitortzerakoan, hark jaso bait zuen euskal hizkuntzalaritza mailarik gorenera. Koldo Mitxelena Erreterian jaiotzen zen 1915ean. 36ko gerra zibilak bete-betean harrapatu zuen. Haren ondorioz zortzi urtez espetxean egon ostean, Filologia Klasikoan lizentziatu zen. Salamanca, Sorbonne eta Gasteizko unibertsitateetan irakatsi zuen. 1987an hil zen, Orotariko Euskal Hiztegia, bere azken obra izango zenaren lehen liburukia argitaratu aurretik.

HIZKUNTZA GAITASUNA EAEn



Aita Villasante, beti euskararen alde

Gernikak, bere jaioterriak, omenaldi beroa eskaini zion Aita Villasanteri uztailaren 24ean. Horren kariaz, Euskaltzaindiak ere liburu bat eskaini dio frantziskotar gernikarrari. Baina, nor da Aita Villasante?

Luis Villasante Kortabitarte Gernikako Erretereria auzoan jaio zen, 1920an. Txikitatik euskara eta gaztelania batera ikasi zituen. Burgosko Mena bailarakoa zen aitarekin gaztelaniaz egiten zuen. Ama aulestiarrarekin, ostera, euskaraz, lagunekin bezala.

Lehen ikasketak Gernikan egin eta gero, 1931n, hamaika urterekin, Arantzazuko frantziskotarren komentura joan zen. Ikasketak Arantzazun bertan, Foruan, Zarautzen, Oliten eta Comillasen burutu zituen. Gerra zibilak etxean

harrapatu zuen eta aitarekin batera, Gernikako bonbardaketaren lekuko izan zen. 1945ean lehen meza eman zuen Aulestian.



Aita Villasante

1950ean euskaltzain urgazle izendatu zuten, Federiko Krutwigen proposamenez. 1952an euskaltzain oso izateko sarrera-hitzaldia irakurri zuen. 1970ean euskaltzainburu aukeratu zuten, Manuel Lekuonaren orde. Hemezortzi urtez izan da Euskaltzaindiaren buru. Garai horretan egituratu eta legezatu

egin da Euskaltzaindia, lan-taldeak eta batzordeak sortu dira eta lan guzti horiek aurrera eramateko dirubideak ziurtatu. 1988an Jean Haritschelharri eman zion lekukoa. Harez gero Euskaltzaindiko zereginekin batera, betiko lanekin segitzen du Arantzazuko komentuan.

Bizkaierazko klasikoak

EHUko irakaslea den Xabier Altzibarrek *Bizkaierazko idazle klasikoak* liburua argitaratu du. Mitxelenak lehenengo eta De Rijk holandarrak gero zuzendutako doktoradutza-tesiareneko egokitzapena da. Mogeldarrak, Astarloatarrek eta Frai Bartolomeren nortasuna, idazlanak eta grafia aztertzen dira.

Cum Laude aipamena jaso zuen EHUko irakaslea den Gorka Palaciok *Sigla eta sinboloen hiztegia euskaraz* aurkeztu zuen doktoradutza-tesiak. Hiru urteko lanaren emaitza da eta siglen eta sinboloen azterketa eta erabilpena ikertzen ditu.

Birritan antzeztu da dagoeneko Zuberoako Santa Grazi herrian *Santa Kruz* izeneko pastorala. Jules Casenave abade zuberotarrek idatzia da eta Beñat Axiari musikari baionatarrek egindako musikaz.

Villasanteren obra.

Erljio gaietan Angeles Sorazuri buruzko tesia (1951), Eliza (1954), Jainkoa (1962), Jesukristo (1969), eta Kristau fedea (1986) idatzi ditu. Euskal gaietan: Elizalde bilduman zortzi liburu, Euskal Literaturaren Historia (1961), Axularren Gero- ren edizioa (1964), Axularren biografia eta hiztegia (1972, 1973) eta Euskararen auziaz 1988an.

Gernikako bonbardaketa

zuzenean bizi zuen, bere aitarekin batera. Hamasei urterekin miliziano joana zen anaiordea ordezkatzeko ari zen Gernikako tailer batean. Zoritxarreko egunean, Erretereria auzoko etxean zegoen aitarekin, hegazkin alemanak inguruak bonbardatzen hasi zirenean. Etxe barik geratu ziren. Handik gutxira, Luis Zarautzen zegoela, hil zitzaion aita.

Angeles Sorazu.

1921ean hil zen monja euskaldun honi eskaini zion bere tesia 1951n. Harez gero asko idatzi du Aita Villasantek, baina beti izan du gogoan monja, berak aitortu duenez, haren esperientzia mistikoak sekulako zirrara egin ziolako. Iaz euskaraz eta era osatuan berrargitaratu zuen tesia. Gaur egun, Angeles Sorazuren beatifikaziorako behar diren agiriak ari da biltzen.

Gernikako omenaldian

Jose Antonio Ardanza Lehendakariak Villasanteren lan isila goraiatu zuen eta Jean Haritschelhar Euskaltzainburuak bere aurrekoaren lana gogoratu. Gernikako udalbatzak Bizkaiko Seme Bikaina izenda dezala eskatuko dio Foru Aldundiari. Arana-Martijak ohorezko lekuan jarriko luke Villasante euskararen alde egin duen lanagatik.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa: ahozko euskararen bilketa lana

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa: ahozko euskararen bilketa lana

Euskal Herrian euskaraz hitz egiten den tokietako ahozko datuak bildu eta argitaratzea da lan honen helburua. Proiektua 1986an idatzi zen eta harez gero, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgainen zuzendaritzapean, lanean ari da lau pertsonaz osatutako taldea. Hizkuntz atlasa burutzeko ondoko lau pausuak eman behar izango dira:

1. Galdekizuna prestatu eta inkesta puntuak finkatu.
2. Inkestak eta transkribapenak burutu.
3. Datuen tratamendua eta kartografia-lanak egin.
4. Argitaratu.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren kasuan 2.785 itauneko galdekizuna prestatu zen. Galderek hizkuntzaren alderdi desberdinak jorratu dituzte: lexikoa, morfologia, sintaxia eta fonetika. Morfologia mailan euskarak

duen aberastasuna dela eta, morfologiak zati garrantzitsua hartu du. Inkesta puntuei dagokienez, guztira Euskal Herri osoan zehar barreiaturiko 145 herritan egin dira. Aukeratu diren lekukoei pasatu

zaizkien inkestak magnetofono grabatu dira eta zinten bidez jaso den informazio hori koadernoetara transkribatu da alfabeto fonetiko landua erabiliz.

Une honetan erantzun-koadernoetan dagoen informazio guztia ordenagailuan sartzen ari dira,

ondoren datuen lanketa eta kartografi lanak era automatizatuz egin ahal izateko.

Emaitzak mapen bidez argitaratuko dira. Galdekizuneko itaun bakoitzak inkesta-puntu ezberdinetan izan dituen erantzunak jasoko dira mapa bakoitzean. Seguruenik mapa guztiak bost liburukitan argitaratuko dira, 2004. urtearen inguruan.



EUSKALTZAINDIA

Jan Braun, 66, euskalari poloniarra, Varsoviako Unibertsitateko irakaslea da. Aurtengo oporrak Euskal Herrian eman ditu lanean, euskalkiak aztertuz. Oñatin, Azpeitian eta Orozkon izan da, besteak beste.

Roslyn M. Frank, ikerlari kaliforniarra eta Iowako Unibertsitateko irakaslea, euskaldunok euskarari esker gorde ditugun neurketa sistema zahar eta bereziaren aztarnak ari da ikertzen, John Patrick, Australiako Deakin Unibertsitateko informatikari eta matematikariarekin batera.

Suzuko Tamura, 40, Tokyoko Unibertsitateko irakaslea Lazkaoko Maizpide euskaltegian ari da euskara lantzen, EGA ateratzeko asmoz. Sei hilabeterako laguntza lortu ondoren, urtebete egin du euskara ikasten. Bere asmoa Tokyoko Unibertsitatean euskarazko eskolak ematea da.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelera

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

Euskal Herria

Kanpotarrek ere Euskal Herria zer den ezagut dezaten, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eta Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zerbitzu Nagusiak 31 orrialdeko liburuxka hau argitaratu dute, lau hizkuntzatan: alemanez, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez. Testua Joseba Intxaustirena da.



Galdezka

Funtzionariak

G• zein iritzi duzu administrazioko langileen ahaleginaz?

E• Ikustekoak dira Funtzio Publikoko langile, irakasle, ertzain eta osasun munduko asko egiten ari diren ahaleginak, gizarteak batzuetan aintzakotzat hartu ez dituen arren. Ahalegin horiek, eskubide eta betebeharren arteko gatazka murriz baten inguruan egituratzen dira, asmorik onenak lardaskatuz eta hainbat ahalegin alferrik galduz. Jendeak ez dio eskerronik aitortu gizarte eta hizkuntzaren normalizaziorako garrantzitsuenetarikoa den ahaleginari. Gainera, litekeena da funtzionari edo maisu horrek aldeak ikustea eskatzen zaion mailaren eta ikasteko dituen aukera zehatzen artean, edota eguneroko agertoki teorikoaren eta praktikoaren artean. Ez da batere erraza egokitzapen zehatzak lortzea, horretan ari bagara ere.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Euskararen etorkizunaz

Badira ia 15 urte Koldo Mitxelena zenak hitzaurrea jarri ziola Euskaltzaindiak argitaratutako Euskararen Liburu Zuria delakoari. Idazlanean euskarak historian zehar izandako gorabeherak aztertzen ditu, bere izate ñabarra, iraupen harrigarria eta batzeko egindako ahaleginak.

Bukatzeko euskararen etorkizunaz idatzi zuen, bi abisu emanez. "Agian, gure artean hain errotua dagoen boluntarismoaren arriskua salatu beharrean gara, nahikunde hutsa helburuetara iristeko nahikoa bailitzan. Ez ditut ukatuko, utopiaren ondorio miresgarriak, batzuk begien aurrean baititu. Nahiago nuke, ordea, bada ez bada ere, ezer egingo bada beti beharrezkoak diren ametsak eta berotasun suharrak lagun eta aintzindari kalkulua izango balute, eginahalean zehaztuz zeren bila gabiltzan, zein urratsetan lortuko

dugun, eta nolako bitartekoak ditugun eskumenean orain eta gero.

Ezin fida daiteke -zenbaitek, areago erosokeriaz beste ezertaz baino, egiten duen bezala- dekretuaren ondorio miresgarrietan, ez ofizialkidetasun nahiz ofizialtasunezko aitortenetan. Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntz artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Beste nonbait esan eta idatzi dudana bezala, diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela ez gaitezela ghettoaren ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezerein bezain beharrezkoa dugu".

Hausnarketa hauek edo Koldo Mitxelena *Euskararen Liburu Zurian* Idatzitako hitzaurretik jaso dira.

✓ Kontutan hartzeko

- **Oihenarten IV. mendeurrena.** Oihenart jakintsu zuberotarraren jaiotzaren IV. mendeurrena ospatzeko, Euskaltzaindiak bere XII. Biltzarra eratu du Maule eta Donapaleu herrietan, irailaren 20tik 25era. Hitzaldiak, bilerak, txostenak eta gorazarrezko ekintzak izango dira.
- **Forum Europa. Irailaren 22tik 27ra egingo dira,** Luxemburgen. Europa osoko

eremu urriko hizkuntzetan idazten duten idazleak bilduko ditu. Euskal Herriko ordezkariak Mariasun Landa eta Beñat Oyharçabal izango dira.

- **Euskara Gasteizko udal ludoteka zerbitzuetan.** Gasteizko udal ludoteka zerbitzuak euskaraz jaso nahi dituztenek eskatzeko aukera izango dute eskari-orrietan irailetik aurrera. Horrela jakin ahal izango da gasteiztarren artean zenbatekoa den euskararen eskaria.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA